

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Espartza Zaraitzuko hondakin-uren araztaile berriak 400 pertsonari emango die zerbitzua

Espartza kontseilariak gaur ireki du laster Jaurrietakoa batuko zaion instalazioa; hala, Pirinioetako Ezka eta Zaraitzu ibaietako uren tratamendua osatuko da.

Jueves, 31 de octubre de 2013

Espartza Zaraitzuko hondakin-uren arazteko instalazio berriak 400 pertsona inguruko herriari emango dio zerbitzua. Instalazioa Jaurrietakoarekin batera martxan denean, Pirinioetako Ezka eta Zaraitzu ibaietako uren tratamendua osatuko da.

Instalazioak gaur inauguratu ditu José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak. Ekitaldian izan dira, halaber, Francisco Pérez Arregui Toki Administrazio zuzendari nagusia, Gregorio Beaumont herriko alkatea eta Andrés Sola NILSAko kudeatzailea.

Espartza Zaraitzuko ehun biztanle inguru ditu, udan biztanle kopurua bikoiztu egiten den arren. Instalazioak ohiko biztanleei eta udako sasoi jendetsuenetan herrian bizi direnei ematen die zerbitzua, baina baita gehienez 200 pertsona inguru har ditzakeen herriko kanpinetako ere. Aurreikusituz, batez besteko emaria 0,82 litro segundokoa da (hau da, egunero 71 metro kubiko tratatu behar dira), nahiz eta instalazioak kopuru hori zazpi aldiz gehiago hartzeko gaitasuna izan (5,75 litro/segundo), inguruko hazkuntza kontuan hartuta, emariari zein biztanleei dagokienez.

Proiektuari esker, Zaraitzu ibaiaren eskuineko ibai-ertzeko hondakinak bateratu dira, hustubide baten bidez beste aldera eramanez ahal izateko, sarrerako ponpaketarik egin beharrik gabe. Araztaileak dekantatzeko bi etapa eta ur-iragazki bat ditu, Nafarroako instalazio guztietan ohikoa den sistema biologiko batean. Instalazio horietako prozesuek ibaietako ibilguetan naturalki gertatzen den arazketa antzeratzen dute.

404.580 euroko gastua, Nafarroako Gobernuaren (% 80) eta saneamendu-kanonaren bidez finantzatuta

404.580 euro behar izan dira eraikitzeko. Proiektuaren % 80 Nafarroako Gobernuak eta % 20 saneamendu-kanonaren bidez finantzatu



Esparza kontseilaria eta agintariak, Espartza Zaraitzuko arazteko instalazio berriaren.

da. Kanon hori uraren fakturan ordaintzen da, eta NILSA enpresa publikoak kudeatzen du. 2012an saneamendu-kanonaren bidez 27,6 milioi euro bildu ziren. Horien % 49 lehendik dauden araztaileen ustiapenera bideratu zen osorik; gainerakoa birjarpen-funtsa hornitzeko erabili zen. Datuek aditzera ematen dutenez, bildutako gehiena lehendik dauden instalazioak kudeatzeko erabiltzen da, eraikitze inbertsioak gastu osoa hartzen zuen fasea amaitu baita (2010. urtera arte). Inbertitzeko fasea amaituta, etorkizuneko erronka abian diren ehun araztaileek sortzen dituzten gastuak modu efikaz eta iraunkorrean kudeatzean datza.